

euskara eta feminismoa bidelagun

Azaroko astearteetan mahai-inguruak online

Antolatzaileak



Hizkuntza eta Generoa batzordea

Mugimendu feministaren euskalduntzea: kontsentsu zabala eta bide luzea

Aurreko saioetan mahai gainean jarri diren gatazka linguistikoen, aniztasunaren kudeaketaren eta analisi interseksionalaren beharrea sakondu dute Mari Luz Esteban, Saioa Iraola eta Elurre Iriarte feminista euskaltzaleek. Teoriatik praktikara salto egin dute, eta aktibismo feministaren egunerokoan lortutako aurrerapausoen aitortza egin dute.

June Fernandez- Pikara Magazine

Euskalgintza eta feminismoaren arteko zubien sustatzaile izan dira “Euskara eta feminismoa bidelagun” jardunaldietako azken saioan parte hartu duten hiru solaskideak: Mari Luz Esteban antropologo feminista; Saioa Iraola, Euskal Herriko Bilgune Feministako kidea, eta Elurre Iriarte, Baztango kultur eragile feminista eta Plazara Dantzara taldeko kidea. Aurreko saioetan mahaigaineratutako korapiloetatik tiraka, teoriatik praktikara eta orokortasunetik testuinguru partikularretara salto egin dute. Mugimendu feministaren baitan aniztasuna eta hizkuntza gatazkak kudeatzeko orduan emandako aurrerapausoak eta ebazteko dauden erronkak aztertu dituzte. Askotariko feministen artean nahastearen alde egin dute, hori giltzarria izango bada elkar entzuteko eta elkar interpelatzeko ariketek artikulazio feminista kaltetu baino gehiago sendotu dezaten.

“Gu eta besteak” kategoriak

Euskararen eta feminismoaren alde egitea utopiaren alde egitea dela adierazi du Mari Luz Estebanek, Irene Arraratsen aipua osatuz. “Kontsentsu zabala dugu feminismoan euskaraz egitea zilegi dela. Irtenbideak topatu ahal direla eta irtenbideak topatzen ari garela”, txalotu du antropologoak. Prozesu horretan, hitzaldi ziklo honen bi ekarpen nabarmendu ditu: ahots berriek parte hartu dutela eta herri mugimenduaren eta instituzioen arteko aliantzan oinarritu dela. “Ikusi beharko dugu ea herri mugimendua indartua aterako den”, itaundu du.

Halaber, garrantzitsutzat jo du euskara eta feminismoaren arteko sinergia hori dokumentatua dagoela, baina diagnostiko zehatzagoak egiteko beharra dagoela, teoria eta diagnostiko orokorretatik herriz herri egiten ari dena aztertu, baloratu eta amankomunean jartzeko. Hausnarketa prozesu horren baitan kokatu du euskal argitaletxeak argitaratzen ari diren liburu feministen analisia egitea. Itzultzaile feministen lana goraiatu du, “hitz aiposenak asmatzen dituzte eta teoria feminista sortzen dute itzulpen horien bidez”. Baina, uste du ondo legokeela patxadaz hausnartzea nola elikatuko duen egun argitaratzen ari den horrek mugimendu feministak egin nahi duen bidea: kanpo eta barne kolonialismoa kontuan hartzen duen praktika politiko bat, aniztasuna barnebiltzeko gai dena eta aldi berean Euskal Herrian errotua.

Mugimendu feministan euskara sendotzeko orduan argitu beharreko hainbat desadostasun ere identifikatu ditu: hasteko, nola neurtu zer den arrakasta erabilerari dagokionez. Adibide gisa jarri du

pasa den urtean Durangon ospatutako Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan batzuk pozik atera zirela aurreko jardunaldietatik jauzi inportantea egin zelako euskararen erabilerari dagokionez, baina beste batzuen irakurketa ez zela horren positiboa izan. Adostasun falta ere ikusten du feminismoaren baitan “euskaldun” izatea zer den definitzeko orduan. Bere ustez, “Euskal Herriko feminismoan euskaldun izateko modu asko daude, eta erdaldun izateko, beste horrenbeste. Euskara norberaren bizitzan erdigunean jartzeko apustu gisa bakarrik definitzen badugu euskalduntasuna, horrek hankamotz utziko ditu teoria eta praktika politikoa”, gaineratu du.

UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile honek adierazi du zalantzak dituela aktibismoan eta bai jardunaldi hauetan ere aniztasuna eta interseksionalitatea ulertzeko eta kudeatzeko moduari buruz. Aniztasunari dagokionez, adierazi du orokorrean arreta migrazioetan, etnien eta jatorri kulturalen jarri dela eta bigarren maila batean uzten direla beste osagai batzuk: adina, klase soziala, ideologia, erlijioa... Haren ustez, horren ondorioa da “hemengoak eta kanpokoak” eta “gu eta besteak” dikotomiak sendotzea, eta, hortaz, “gotortu egiten ditugu posizioak”. Agerian utzi du emakume migratuak aditu gisa tratatu ordez, testigantzak eskatzen zaizkiela eta haien parte hartzea saio jakin batean kontzentratzen dela, aniztasuna zeharka txertatu ordez.

Gogorarazi du interseksionalitatearen ikuspegia zapalkuntzen batuketa baino gehiago menderakuntzen uztarketa konplexua egitean datzala. Adierazi du, esaterako, gaztelania kultur hegemonia inposatzeko erabili den hizkuntza bada ere, aldi berean euskara klase kategoriatan bat dela onartu beharra dagoela. Joseba Zalakainek *Berrian* argitaratutako artikulu bati erreferentzia egin dio, “Pobreen hizkuntzak”. Ikerlari honek nabarmendu du ama hizkuntza gaztelera dutenen pobrezia tasa ama hizkuntza euskara dutenenaren bikoitza dela (% 16 eta % 8), eta ehuneko hori %58ra igotzen dela beste hizkuntza batzuetan hazitako biztanleen kasuan.

Begirada interseksional hori praktika politikora nola eraman argitze aldera, Amaia Astobiza itzultzaile feministak *Berrian* publikatutako artikulu* baten galdera ekarri du Estebanek: “Herriko emakume migratuen eskakizunekin bat egin nahi badugu, emakume arrazializatuen borrorak agerian jarri, sektore feminizatueta dihardutenen lan baldintza prekarioak ezagutarazi... nola egingo dugu euskaraz bakarrik?”. Erantzuteko orduan, Lutxo Egiak bigarren saioan esandakoari buelta eman dio: euskaldunak transitzioera behartuak gaudela ondorioztatu ordez, iragate horiei kutsu negatiboa kendu behar zaie, betiere irtenbideak asmatuz euskara galtzaile atera ez dadin.

Teoria dekolonialak feminismo zuria ozen interpelatu duen une honetan, feminismo dekolonial anizkoitz bat aldarrikatu du antropologoak, Europaren ardurakolonialista kontuan hartuko duena eta ulertuko duena, halaber, elebakartasuna Europa barruko nazio estatuak indartzeko mekanismo bortitza izan dela eta badela. Azkenik, zapalkuntzen inguruko barne-etzabaida feminista ondo bideratzeko premia adierazi du. “Ez dugu beti asmatzen. Eetzabaida jende aurrean egiten badugu, eetzabaida bihurtzen badugu ikuskizun, emaitzak ez ditugu kontrolatuko”. Feministen arteko eetzabaida pribatuak sustatzearen alde agertu da: “Ez ditugu nahikoak egiten. Eta horietan aniztasun gutzia barnebildu behar dugu”.

Interpelazio maitekorrak

Saioa Iraolak zenbait gauza gogora ekarriz hasi du bere mintzaldia. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioaren historian herrigintzak egindako lan handia eta horretan emakumeek izan duten parte hartzea goraiatu ditu. Horren erakusle da frankismoan emakumeekiko jazarpenera handiagoa izan zela, hain justu, andreak gako zirelako hezkuntza eta kultura gordetzeko lanean.

Euskal Herrian 70eko hamarkadatik aurrera mugimendu feminista loratu zenetik, euskaraz jardutearen hautu politiko eta kontzientea egin dute kide askok, baina XXI. mendea heldu arte ez da lortu mugimendu feminista euskalduntzea, hau da, taldeetako kideen jarduteaz haratago joatea eta mugimenduaren funtzionamenduan euskararen erabileraren aldeko intentzioa sendotzea. Salto kualitatibo bat egon dela ospatu du Iraolak, intentzio hori ez delako bakarrik kartelen hizkuntzan

edo mahai-inguruak itzultzeko jardunbidean islatzen, baizik eta artikulazio feministan euskara komunikazio-hizkuntza bihurtu baita.

Errealitate soziolinguistikoaren eboluzioak lagungarria izan da; izan ere, duela 30 urte, emakume gehienak erdal elebakarrak ziren. Baina mugimendu feministaren indarguneei lotutako arrazoi gehiago eman ditu aktibista honek: alde batetik, izaera herritar eta deszentralizatuak ahalbidetu du “euskaraz jardutea txoko feminista askotan”; bestetik, feminismoak beste mugimenduekin (antimilitarismoa, okupazio mugimendua, sexu askapen mugimendua, gaztetxeak, bakegintza...) estuki lotzeko prestasunak lagundu du euskalgintzarekin aliantzak bilatzen. Horrez gain, feminista euskaltzaleek egindako “lan nekaezina” eskertu du, baita euskarazko kazetari feministena eta euskal itzultzaile feministena ere. Eta, azkenik, argi utzi du Euskal Herriko Bilgune Feministaren sorrera gakoa izan dela pentsamendu feminista euskaraz sortzeko eta sustapen lan hori egiteko orduan, besteak beste, Emakumeen Mundu Martxa esperimentazio gune bihurtzea.

Interseksionalitatearen erronkan sakontzeko bidea ere iradoki du Iraolak. Feminismoak Euskal Herrian gertatzen diren zapalkuntzen ertz guztiak barnebiltzeko grina duela kontuan izanda, deitoratu du oraindik ere hizkuntza hegemonikoa gailentzeko joera dagoela eta kide askok hizkuntza zapalkuntzaren kontrako borrokari garrantzia kentzen diotela. Egun bizi dugun krisi egoeran, borrokak mailakatu ordez borrokak senidetzearen urgentzia defendatu du: “Inoiz baino premiazkoa da jendartean alternatiba feminista eta antikapitalista eraikitzea. Horretarako, feminismoak, euskalgintzak, klase borrokak eta lurraren aldeko defentsak eskutik joan behar dute”.

Asmo hori gauzatzeko, egunerokoan kudeaketa linguistikorako tresna eta markoen beharra azpimarratu du. Mugimendu feministak euskaraduna ez denari bitartekari autogestionatu eta doakoak eskaintzearen alde agertu da, klase zapalkuntzak euskararen normalizazioa oztopatzen duelako. Eta bitartekari horiek lortzeko, instituzioei ardura eskatzea proposatu du. Horrenbestez, kontatu du nola mugimenduak dirulaguntza bat eskatu zion Hizkuntza Politika Sailari, historian lehengo aldiz, Durangon ospatutako jardunaldi feministetarako. Estebanek aipatutako kritikak ulertu ditu, “baina 1977ko jardunaldietatik 2020ra egindako bidea aitortu, aintzat hartu, eta akordioak eta adostasunak balioan jarri” behar direla argudiatu du.

Hiriburuetan, martxoaren 8ko manifestazio jendetsuetan gaztelania gailendu dela dioten kritikak ere aipatu ditu ekintzaile horrek. Erantzun du ezin zaiola mugimendu feministari eskatu emakume guztiak bat-batean euskalduntzea, eta nabarmendu du militante feminista askok euskalduntzeko eta euskaltzaletzeko gune nagusi edo bakar gisa dutela mugimendu feminista.

Abenduaren 12an, Emakume* Abertzaleen Topaketak egingo ditu Bilgune Feministak Oretetan, eta arrazakeria eta borroka dekoloniala euskal nazio zapalkuntzarekin bateratzeko erronka izango dute hizpide. Bide horretan, Iraolak nabarmendu du premiazkoa dela aniztasunaren kudeaketan jatorri desberdinetako emakumeen arteko nahasketa eta elkarbizitza erraztuko dituzten espazioak izatea. Egun Pasaiako Berdintasun teknikaria da, eta kontatu du Migrazio sailarekin elkarlanean jatorri desberdinetako emakumeen arteko topaketak egiten dituztela. Baina, Tarana Karimek aurreko mahai inguruan esan bezala, azpimarratu du elkar ezagutze horrek joan-etorrikoa izan behar duela: beste hizkuntza eta kulturekiko begirunea izan behar dute feminista euskaldunek. Bere pentsamendu, gorputzak eta bihotzak dekolonializatzeko prest agertu da Iraola, eta Guatemalako aktibista batekin ikasi duen kontzeptu bat aldarrikatu du: maitasunezko interpelazioak: “Haserretik aliantzak eraikitzea ez da erraza”.

Euskal kulturen genero zapalketa

Elurre Iriartek lagundu du Estebanek eskatutako bidean: Baztango egoera partikularretik abiatuta, feminista euskaldunentzat inspiratzailea den diskurtsoa egin du. Hasteko, Baztan euskararen paradisu delako ideia deseraiki du. Nafarroako arnagune nagusia bada ere, adierazi du ezagutzak eta erabilera ez dutela bat egiten, besteak beste Gobernuak ez duelako behar beste

baliabide jartzen biztanleak euskaraz bizi daitezzen. “Etxeko hizkuntza euskara izateak ez du bermatzen euskararen zapalkuntzaren kontzientzia izatea”, gaineratu du. Klusterreko datuen arabera haur eta lehen hezkuntzako umeen % 100a D ereduan matrikulatzen bada ere, karriketan, gazteen artean, espainola gailentzen da.

Baztango mugimendu feministan hizkuntzari buruzko barne-eztabaidak “eraikitzaileak eta aldi berean errepikakorrek” direla adierazi du. Espazio feministetan gizonen presentziarekin lotutako auziarekin alderatu du sentsazio hori, “sentsazioa da berdintsu errepikatzen direla”. Martxoaren 8ko edo Emakumeen Mundu Martxako jarduerak antolatzen dituztenean, bertoko erdaldunekin zein migratzaileekin agertzen da talka hori, baita Euskal Herriko kanpainak antolatzeko Iruñeko biltzarretara joaten direnean ere: “Ukatu egiten dute gure identitatea. Denbora faltagatik espainolez egitea errazagoa dela diote, denok ulertzen dugulako. Horrelakoak konpondu behar ditugu”.

Etorkinen parte hartzeari dagokionez, ohartu da gaztelania lehen hizkuntza ez dutenekin (esaterako, jatorriz Txinakoak, Errusiakoak edo Errumaniakoak direnak) aliantza gutxiago egin dituela mugimendu feministak: “Hori ere hizkuntza zapalketaren ondorio da”. Iraolak adierazitako joan-etorriko harreman horizontal horren premia ere defendatu du kultur ekintzaile honek: “Gurera ekarri nahi ditugu emakume migratuak, elkarrekin aritu beharrean. Elkarri entzuteko kapaz izan behar dugu. Beren hizkuntza zapalketak kontuan hartu behar ditugu, eta guk ere haiei kontatu, gure zapalketa zein den”.

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen mezu bat ekarri du gogora: euskarara erdaldunak erakartzeko orduan, limurtzea eta seduzitzea baino gehiago, interpelatzearen alde egiten du berak ere. “Xurxulatzea, aldibereko itzulpenak eta batzar paraleloak egingo ditugu, afera da noiz arte egin beharko dugun guk esfortzu hori”. Iraolaren proposamena bere egin du: mugimendu feministak euskara klase autogestionatuak antolatzeko duen aukera.

Bere hitzaldiaren bigarren partean, Baztango emakumeek euskal kulturaren baitan bizi duten genero zapalketaz eta erresistentzia feministez aritu da. Mutil-dantza parekidearen aldeko borrokan parte hartzen du Iriartek, Plazara Dantzara elkartearen bidez. Elkarte horrek erabaki zuen iskin egitea bi hizkuntzetan eginez gero jende gehiagorengana helduko zirelako argudioari, eta, hala, euskara hutsean jarduten dira: “Gerra eman genuen, diskurtso feminista koherentea garatuz, dena euskaraz”. Baztanen generoa, hizkuntza eta klasearen arteko gurutzaketak bestelako botere harremanak sortu dituela azaldu du kultur eragile honek: Plazara Dantzara taldeak aurrean dituen gizon baztertzaitzaileak, alegia, mutil-dantza tradizional sexistaren defendatzaileak, botere ekonomikoa duten espainol hiztunak dira eta. Feministek erabaki zuten gizon horiekin batzartzean euskarari eustea: “Ez zutena ulertzen, moderatzaileak eta guk geuk itzultzen genien”. Jabekuntza linguistiko hori ahalduntze feminista indartu zuen: “Plazak okupatu ditugu, botere instituzionala okupatu dugu... Emakumezko euskaldun pila ahaldundu gara”.

Feminista nafar honek beste auzi bat ekarri du gogora aktibismoan euskaraz jardutearen apustuaren indarra frogatze aldera: lurraren defentsaren aldeko plataforma bat sortu zen euskara hutsean, eta euskarazko komunikabideek eman zuten bere borrokaren berri. UPNk ulertu zuen bere bertsioa eman behar zuela, eta horrek behartu zuen euskararen etsai den alderdi politikoa adierazpenak euskaraz egitera. Iriarteren ustez, horrelako apustu irmoak izan daitezke gakoa “euskarak inportantzia, pisua eta garrantzia har dezan, jendeak ikasteko behar bat sentitu dezan”.

Azkenik, nabarmendu du aktibismoan ez dagoela hizkuntza zapalketari lotutako erasoak salatzen kulturarik, eta hori garatu beharko litzakeela. “Ni emakume eta euskaldun naizen aldetik, ezin ditut bereizi nire bi *ni* horiek. Lotuak daude bi zapalketak, borrokak lotuz gero ahalduntzea ere lotuta etorriko da”, ondorioztatu du.

*Amaia Astobizaren artikulua “Euskararen erabilera praktika feministetan” da. Azken paragrafoa lau saioetan aipatutako hizkuntza gatazkari aurre egiteko abiapuntu paregabea iruditu zait:

“Talde feministen barruko dinamikei dagokienez, tarte bat har dezakegu hizkuntzei buruz berba egiteko. Konta diezaiegun euskaraz ez dakitenei zer den guretzat euskara; gure zapalkuntzen eta gure identitatearen zer parte betetzen duen, eta nola uztartzen den zati hori gure gainerako zapalkuntza eta identitateekin. Era berean, entzun dezagun zer ematen dieten hizkuntzek haiei, zer kentzen. Eta hala, elkar hobeto ezagututa, errazagoa izango da hizkuntzekin eroso sentitzea, eta samurragoa izango da euskaraz ez dakiten haiek apurka euskarara hurbiltzea. Izan ere, euskaraz *ahobizi* izatea ondo dago, baina batzuetan *belarriprest* izaten ere jakin behar dugu, euskara ez den beste hizkuntza batean bada ere”.

euskara eta feminismoa **bidelagun**

Euskaigintzaren eta feminismoaren arteko zubiak

Azaroak 24, 10:00 - 11:30 mahai-ingurua



Mari Luz
Esteban
Galarza

Saioa
Iraola
Urkiola



Elurre
Iriarte
Bañez



Aurkezlea:
Onintza
Irureta
Azkune



Antolatzaileak



Hizkuntza eta Generoa batzordea